Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko martxoaren 1a, ostirala — 42 — Viernes, a 1 de marzo de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### MUGIKORTASUNEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

**Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia**

*«Gipuzkoan bizikleta garraio modu gisa erabiltzea sustatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntza programaren» 2019ko deialdia.*

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak 2019ko otsailaren 14ko 029/2019 foru agindu bidez honako hau ebatzi du:

«Diputatuen Kontseiluak, 2016ko martxoaren 8an egindako batzarraldian, Gipuzkoan bizikleta garraio modu gisa erabiltzea sustatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzak emateko programaren oinarri arautzaileak onartu zituen hala nola, 2016. urteko deialdia.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Gipuzkoan bizikleta garraio modu gisa erabiltzea sustatzeko lanean jarraitu nahi du. Horretarako xede berdina duen diru.laguntza deialdi berri bat egingo da.

Hortaz, diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoan eta bertako biztanleei zuzenduta bizikletaren erabilera sustatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteek.

Diru-laguntzak finantzatzeko, 20.000 euroko aurrekontu kreditua xedatu da «Bizikleta bideak» programaren 1 0510.110.481.00.01 2019 kontu sailean.

Ondorioz, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak, bere eskumenak erabilita

EBAZTEN DU

*Lehen.* Gipuzkoan bizikleta garraio modu gisa erabiltzea sustatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzak emateko programaren 2019ko deialdia, erabaki honen eranskin modura doana.

*Bigarren.* Baimentzea 20.000 € gastua baimentzea, 2019ko deialdiari aurre egiteko, aurrekontuko 1 0510.110.481.00.01 2019 kontu sailaren kontura:

*Hirugarren.* Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete, interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute foru diputatuari horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

**Dirección General de Movilidad y Transporte Público**

*Convocatoria 2019 del «programa de concesión de ayudas destinadas a asociaciones sin ánimo de lucro que promuevan el uso de la bicicleta en Gipuzkoa como medio de transporte».*

La Diputada Foral de Movilidad y Ordenación del Territorio, mediante Orden Foral 029/2019 de 14 de febrero de 2019 ha resuelto:

«El Consejo de Diputados, en sesión celebrada el 8 de marzo de 2016, aprobó las bases reguladoras del programa de ayudas destinadas a asociaciones sin ánimo de lucro que promuevan el uso de la bicicleta en Gipuzkoa como medio de transporte, así como su convocatoria para el año 2016.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de la Dirección General de Movilidad y Transporte Público, desea seguir contribuyendo a la promoción del uso de la bicicleta en Gipuzkoa, para lo que pretende realizar una convocatoria de subvenciones con idéntico objeto.

Así, podrán solicitar estas subvenciones las asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollen actividades de promoción del uso de la bicicleta en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y cuya población sea la destinataria de las mismas.

Para financiar la concesión de estas ayudas, se ha consignado en la partida 1 0510.110.481.00.01 2019 del programa de «Vías Ciclistas» crédito presupuestario por importe de 20.000,00 euros.

En consecuencia, en el ejercicio de sus competencias, esta Diputada Foral de Movilidad y Ordenación del Territorio

RESUELVE

*Primero.* Aprobar la convocatoria del año 2019 del programa de concesión de ayudas destinadas a asociaciones sin ánimo de lucro que promuevan el uso de la bicicleta en Gipuzkoa como medio de transporte, que se acompaña al presente acuerdo como anexo.

*Segundo.* Para hacer frente a la convocatoria del año 2019, autorizar un gasto de 20.000 €, con cargo a la partidas presupuestaria 1 0510.110.481.00.01 2019.

*Tercero.* Ordenar la publicación de la presente orden foral en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra la misma recurso contencioso–administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá

EK\CV GAO-I-2019-01191

aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

ERANSKINA

*Gipuzkoan bizikleta garraio modu gisa erabiltzea sustatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntza programaren 2019ko deialdia.*

*Lehenengo. Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen bitartez, Gipuzkoan bizikleta garraio modu gisa erabiltzea sustatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntza programaren 2019ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzak emango dira.

*Bigarrena. Baliabide ekonomikoak.*

Deialdi honetarako 20.000 euroko zenbatekoa aurreikusi da Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren 2019. urteko aurrekontuko kontu sail honen kargura: 1.0510.110.481.00.01.2019.

*Hirugarrena. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2019ko martxoaren 29an amaituko da.

*Laugarrena. Jarduketa exekutatu eta egiaztatzeko epeak.*

Oinarri arautzaileetan azaltzen den legez:

a) Diruz lagundu daitezkeen jarduketak, 2019an hasi behar dira eta 2019ko azaroaren 10a baino lehen amaitu behar dira.

b) Oinarri hauetako diru laguntzak zuritzeko, egindako jardueren kontu zurigarria aurkeztuko da 2019ko azaroaren 25a baino lehen.

*Bosgarrena. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

1. Diru laguntza eskaerak deialdi honen eranskinean jasotako ereduaren arabera beteta aurkeztu behar dira.

2. Eskaera orriarekin batera ondoko dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Erakundearen estatutuen eta eraketa aktaren kopia; dagokion erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

b) Identifikazio fiskaleko kodearen kopia.

c) Zerga alorreko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak (datu horiek diru laguntzen organo kudeatzaileari zuzenean lagatzeko baimena eman ezean).

d) Erakunde eskatzailearen legezko ordezkari den pertsona fisikoaren NAren fotokopia eta ordezkaritza hori egiaztatzen duen agiria.

e) Diru laguntza jaso dezakeen jarduketaren azalpen memoria.

f) Diruz lagundutako jardueran generoaren ikuspuntua sartzeko egin behar diren jarduketen memoria.

g) Entitate eskatzaileak azken lau urtetan egin dituen proiektuen azalpen memoria, betiere proiektu horien xedea bada bizikleta bidezko mugikortasunarekin zerikusia duten gaien inguruko heziketa, informazioa, ezagutza edo sentsibilizazioa.

h) Proiektua gauzatzeko gastuen aurrekontua, kontu sailetan banakatuta, eta proiektuaren gainerako finantzazio bideak, halakorik balego.

interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

ANEXO

*Convocatoria 2019 del programa de ayudas destinadas a asociaciones sin ánimo de lucro que promuevan el uso de la bicicleta en Gipuzkoa como medio de transporte.*

*Primero. Objeto de la convocatoria.*

Se realiza la convocatoria correspondiente al ejercicio presupuestario 2019 del programa de ayudas destinadas a asociaciones sin ánimo de lucro que promuevan el uso de la bicicleta en Gipuzkoa como medio de transporte.

*Segundo. Recursos económicos.*

La presente convocatoria cuenta con una dotación económica de 20.000 euros para el ejercicio presupuestario 2019, con cargo a la partida presupuestaria 1.0510.110.481.00.01.2019 de la Dirección General de Movilidad y Transporte Público.

*Tercero. Plazo de presentación de solicitudes.*

Podrán presentarse las solicitudes de ayuda a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y hasta el 29 de marzo de 2019.

*Cuarto. Plazo de ejecución y de justificación de las subvenciones.*

Conforme a lo establecido en las bases reguladoras:

a) Las actuaciones objeto de solicitud deberán iniciarse en el año 2019 y finalizarse antes de 10 de noviembre de 2019.

b) Las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán, mediante la presentación antes del 25 de noviembre de 2019, de la cuenta justificativa de las actividades realizadas.

*Quinto. Documentación a presentar.*

1. Las solicitudes de subvención se presentarán debidamente cumplimentadas, conforme al modelo que se anexa a esta convocatoria.

2. Al impreso de solicitud se acompañará la siguiente documentación:

a) Copia de los estatutos y del acto fundacional de la entidad; certificación de estar dada de alta en el registro de correspondiente.

b) Copia del código de identificación fiscal.

c) Certificados de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social (salvo que se autorice expresamente la cesión de dichos datos directamente al órgano gestor de las subvenciones).

d) Fotocopia del DNI de la persona física representante legal de la entidad solicitante y documento que acredite dicha representación.

e) Memoria explicativa de las actuaciones subvencionables.

f) Memoria de las actuaciones a llevar a cabo para integrar la perspectiva de género en la actuación subvencionable.

g) Memoria descriptiva de los proyectos realizados por la entidad solicitante durante los últimos 4 años y que tengan por objeto la educación, la información, el conocimiento o la sensibilización sobre temas relacionados con la movilidad ciclista.

h) Presupuesto desglosado del coste que la ejecución de tal proyecto conlleve, haciendo constar los demás medios de financiación del mismo, si los hubiere.

EK\CV GAO-I-2019-01191

i) Beste edozein dokumentazio, esleipen irizpideak kreditatzeko aukera ematen duena.

*Seigarrena. Jakinarazpenak.*

Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, 2015eko urriaren 1ko 39/2015 Legeak, Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege-ondorio guztietarako.

Donostia, 2019ko otsailaren 20a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (1191)

i) Cualquier otra documentación que posibilite la acreditación de los criterios de concesión.

*Sexto. Notificaciones.*

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

San Sebastián, a 20 de febrero de 2019.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (1191)

Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

**Deialdiaren ERANSKINA / ANEXO a la convocatoria**

**GIPUZKOAN BIZIKLETA GARRAIOBIDE GISA ERABILTZEA SUSTATZEN DUTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMA**
**2019ko deialdia /**

**PROGRAMA DE AYUDAS DESTINADAS A ASOCIACIONES SIN ÁNIMO DE LUCRO QUE PROMUEVAN EL USO DE LA BICICLETA EN GIPUZKOA COMO MEDIO DE TRANSPORTE**
**Convocatoria 2019**

**ESKAERA ORRIA** / HOJA DE SOLICITUD

| **ELKARTE ESKATZAILEAREN DATUAK /** DATOS DE LA ASOCIACIÓN SOLICITANTE | | | |
|---|---|---|---|
| **Izena /** Nombre | | | |
| **IFZ / IFK** NIF / CIF | | **Helbidea /** Domicilio | |
| **Telefono zbkia. /** Nº teléfono | | **Posta elektronikoa /** Correo electrónico | |

| **SINATZAILEAREN DATUAK /** DATOS DE LA PERSONA FIRMANTE | | | |
|---|---|---|---|
| **Ordezkariaren izen-abizenak /** Nombre y apellidos de la persona representante | | | |
| **NA/ IFK** DNI / CIF | | **Emakumea /** Mujer ☐<br>**Gizona** / Hombre ☐ | |
| **Telefonoa zbkia. /** Nº teléfono | | **Posta elektronikoa /** Correo electrónico | |

| **JARDUKETA DIRUZ LAGUNGARRIA /** ACTUACIÓN OBJETO DE SUBVENCIÓN | |
|---|---|
| **Izena /** Denominación | |
| **Proiektuaren azalpena /** Descripción del proyecto | |
| **Proiektuaren zenbatekoa, BEZik gabe /** Importe del proyecto, sin IVA | |

| **KOMUNIKAZIOAK ONARTZEA** / ACEPTACIÓN DE COMUNICACIONES |
|---|
| **Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura. /** Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada. |

| **Erakunde edo pertsona eskatzaileak baimena ematen dio dirulaguntzaren Departamentu kudeatzaileari organo lagatzailearen ondorengo datuen kontsulta egin dezan: /** La entidad o persona solicitante da su consentimiento al departamento foral gestor de la subvención para que consulte del órgano cedente los datos de: | | |
|---|---|---|
| **Zerga betebeharrak egunean dituela** Cumplimiento de las obligaciones tributarias | Bai / Sí | Ez, agiria eransten da / No, se adjunta certificado |

EK\CV GAO-I-2019-01191

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

| | | |
|---|---|---|
| **Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituela**<br>Cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social | Bai /<br>Sí | Ez, agiria eransten da /<br>No, se adjunta certificado |

| **ARDURAPEKO DEKLARAZIOA** / DECLARACIÓN RESPONSABLE |
|---|
| **AITORTZEN DUT ez ni ezta nik ordezkatzen dudan entitatea ere ez gaudela sartuta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeratan. Aldi berean, entitatea ez dago 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak aurreikusten dituzten onuradun izateko debeku egoeraren batean. /**<br>DECLARO que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007 de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la igualdad de Mujeres y Hombres. |

**PROIEKTU HONEK ESKATUTAKO/JASOTAKO BESTELAKO LAGUNTZAK /**
OTRAS AYUDAS SOLICITADAS/CONCEDIDAS POR EL MISMO PROYECTO

| **Erakundea /** Organismo | **Deialdia /** Convocatoria | **Onartze data /** Fecha de aprobación | **Zenbatekoa /** Importe | **Onartutako diru laguntza /** Subvención concedida |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | **GUZTIRA** / TOTAL | | |

**Lekua eta eguna /** Lugar y fecha……………

**Izptua. (Sinadura eta zigilua) /** Fdo.: (Firma y sello)

**Eskaera honi erantsita doaz dokumentu hauek (jarri X):**
Se adjunta a la presente solicitud la siguiente documentación (marcar con una X):

- ☐ **Eskatzailearen NAren kopia eta eskaera sinatzen duenak elkartearen izenean jardun dezakeela egiaztatzen duen agiria** / Copia del DNI del solicitante y documento acreditativo de que quien firma la solicitud puede actuar en nombre de la asociación.
- ☐ **Copia de los estatutos y del acto fundacional de la entidad, y certificación de estar dada de alta en el registro de correspondiente** / Estatutuen eta fundazio-egintzaren kopiak, eta dagokion erregistroan alta emanda egotearen ziurtagiria.
- ☐ **Identifikazio fiskaleko kodearen kopia /** Copia del código de identificación fiscal.
- ☐ **Diru laguntza jaso dezakeen jarduketaren azalpen memoria** / Memoria explicativa de la actuación subvencionable.
- ☐ **Aurrekontu xehatua** / Presupuesto desglosado.
- ☐ **Entitate eskatzaileak azken lau urtetan egin dituen proiektuen azalpen memoria, betiere proiektu horien xedea bada bizikleta bidezko mugikortasunarekin zerikusia duten gaien inguruko heziketa, informazioa, ezagutza edo sentsibilizazioa** / Memoria descriptiva de los proyectos realizados por la entidad solicitante durante los últimos 4 años y que tengan por objeto la educación, la información, el conocimiento o la sensibilización sobre temas relacionados con la movilidad ciclista.
- ☐ **Diruz lagundutako jardueran generoaren ikuspuntua sartzeko egin behar diren jarduketen memoria /** Memoria de las actuaciones a llevar a cabo para integrar la perspectiva de género en la actuación subvencionable.
- ☐ **Beste hauek** / Otros: ……………………………………………

EK\CV GAO-I-2019-01191